| |
|---|
| **Nahi estrategikoa:** Amasa-Villabona euskal hiztun kontziente eta aktiboak dituen herria izatea, euskararen erabilera |
| **Misioa:** Amasa-Villabonako eragile publiko zein pribatu guztientzako marko eta bide orri bat eskaintzea datorren hamarkadarako, euskal hiztunak aktibatu eta ahalduntzeko nahiz euskararen komunitatea sendotzeko eta euskaldunago, justuago, ekitatiboago eta inklusiboagoa eraikitzen laguntzeko. |
| **Ikuspegia:**<br>- Euskararen transmisioa bermatuko da.<br>- Euskararen ezagutza eta erabilera areagotu egingo dira.<br>- Hizkuntza portaera kontzienteak dituen euskal komunitate bizi eta indartsu bat izango dugu.<br>- Euskal hiztun aktibo gehiago izango ditugu gizarte esparru guztietan.<br>- Euskara bihurtuko da komunitateko kide izateko bidea.<br>- Amasa-Villabonara datozen bisitariek nabarituko dute euskaraz bizi den herria dela. |

## ARDATZ ESTRATEGIKOAK, ERRONKAK, LAN-ILDOAK, EKIMENAK ETA EKINTZAK

| | MAILA | EKINTZA PLANA | Arduraduna(k) | Adierazleak |
|---|---|---|---|---|
| 1. | ARDATZ ESTRATEGIKOA | GOBERNANTZA | | |
| | **ERRONKA** | **G.1. Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.** | | |
| | Lan-ildoa | G.1.1. Herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu. | | |
| | Ekimena | G.1.1.2. Erakunde publiko eta pribatuekin lan egin herritarren hzikuntza-eskubideak bermatzeko eginbeharrez jabe daitezen. | | |
| | Ekintza | Herriko eragile ezberdinekin Euskaran Ados! mahaia osatu eta jarraipena eman | Udala | bileren aktak |
| | Ekimena | G.1.1.4. Hizkuntza-eskubideen diskurtsoa indartu. | | |
| | Ekintza | Hizkuntza-eskubideen inguruko hitzaldiak / tailerrak antolatu | Galtzaundi | antolatutako saioak eta parte-hartzea |
| | Lan-ildoa | G.1.2. Koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean. | | |
| | Ekimena | G.1.2.1. EAEko eta Nafarroako administrazioen artean zein administrazio bakoitzaren barruko sail edo atalen artean elkarlana bultzatu. | | |
| | Ekintza | AROA plana landu, onartu eta aurrera eraman | Udala-UEMA-Galtzaundi | bileren aktak |
| | Ekintza | UEMAren, Galtzaundiren eta Udaleko plan estrategikoak bateratu elkarren osagarri izan daitezen | Udala-UEMA-Galtzaundi | plan estrategikoa |
| | Ekintza | Tolosaldeko koordinazio mahai ezberdinetan parte hartu: TEM, TET, hezkuntza mahaia, euskalduntze-alfabetatze mahaia… | Udala-UEMA-Galtzaundi | bileren aktak |
| | Ekimena | G.1.2.3. Erakunde publikoen eta euskalgintzako eragileen arteko elkarlana bultzatu. | | |
| | Ekintza | Herriko eragileekin koordinatu eta elkarlanerako ildoak zehaztu | Udala | adostutako plana |
| | Ekintza | AROA plana landu herriko eragileekin batera | Udala | bileren aktak |
| | Ekintza | Euskara plana aurrera eramateko elkarlanean aritu beste erakundeekin | UEMA-Udala | landutako ekimenak |
| | Ekimena | G.1.2.4. Euskararen alde ari diren pertsonak, elkarteak, erakundeak, hedabideak, enpresak… saretu. | | |
| | Ekintza | Euskararen erabileran erreferenteak diren edo izan daitezkeen elkarteak identifikatu, eurekin elkarlana areagotzeko | Udala | bilerak/mezuak/deiak |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ekintza | Euskara arloan eragile izan daitezkeen elkarte eta erakundeak identifikatu, eta erreferentziazko pertsonak izendatzea elkarlanerako | Udala | bilerak/mezuak/deiak |
| Ekintza | Erakunde/elkarte ezberdinetan euskara planak abiatzeko bideak aztertu | Udala | adostutako plana |
| Ekintza | Ekimen ezberdinetarako erabiltzen diren dirulaguntzetan hizkuntza-irizpideak txertatu | Udala | txertatutako dirulaguntza kopurua |
| Lan-ildoa | G.1.3. Euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu. | | |
| Ekimena | G.1.3.2. Lidergo postuetan hizkuntza-jokabide eredugarriak adostu eta gauzatu. | | |
| Ekintza | Arduradun politiko eta teknikoekin euskararen inguruko sentsibilizazioa eta kontzientziazioa landu | Udala-UEMA | sentsibilizazio saioa |
| Ekimena | G.1.3.2. Lidergo postuetan hizkuntza-jokabide eredugarriak adostu eta gauzatu. | | |
| Ekintza | Arduradun politiko eta teknikoekin lidergoa euskararen alde aktibatu | Udala | egindako saioak |
| Ekimena | G.1.3.3. Administrazio publikoek euskararen biziberritzearen aldeko jokabide eredugarriak areagotu. | | |
| Ekintza | Udalaren euskara plana bete | Udala | erabilera plana |
| Ekintza | Udalaren euskara planaren berri eman herritarrei | Udala | komunikazioak |
| Ekintza | Langile eta hautetsientzako trebakuntza-fitxa bidali | UEMA | bidalitako fitxak |
| Ekintza | Langileei trebakuntza saioa eskaini | UEMA | parte hartzea |
| Ekintza | Plan eta proiektuen jarraipena egin, eta ELE egingo zaiela ziurtatu | Udala-UEMA | egindako ELEak |
| Ekimena | G.1.3.4. Euskara Zerbitzuen funtzionamenduaren eta berregituratzearen inguruan hausnartu. | | |
| Ekintza | Udaleko Euskara Zerbitzuaren etorkizunaz hausnartu | Udala | adostutako plana |
| Ekintza | Etorkizuneko Euskara Zerbitzua adostu | Udala | adostutako pausuak |
| **ERRONKA** | **G.2. Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.** | | |
| Lan-ildoa | G.2.1. Eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu. | | |
| Ekimena | G.2.1.2. Bilakaera demografikoak dakartzan hizkuntza-erronkei aurre egiteko, tokian tokiko estrategiak landu eta ekimenak bultzatu. | | |
| Ekintza | Herriko aniztasunaren diagnostikoa egin | Udala | egindako diagnostikoa |
| Ekintza | Herriko harrera protokolo integrala martxan jartzea udaleko beste departamentuekin elkarlanean | Udala | harrera protokoa |
| Ekintza | Elkar ezagutza eta elkarbizitza sustatuko dituzten egitasmoak martxan jarri | Udala | burututako egitasmoak |
| Lan-ildoa | G.2.2. Zeharkako hizkuntza-politikak gaaratzeko estrategiak gauzatu. | | |
| Ekimena | G.2.2.2. Euskararen normalizazioari batzen zaizkion erronka sozio-politikoetan sakondu eta modu eraikitzailean eragin (jasangarritasuna, krisi ekologikoa, genero berdintasuna, gizarte aniztasuna, enpresen erantzukizun soziala…). | | |
| Ekintza | Saioak antolatu gaur egungo erronkak barne hartzeko | Udala | antolatutako saioak |
| Lan-ildoa | G.2.3. Gizartearen aniztasuna kudeatu euskara ardatz izanik. | | |
| Ekimena | G.2.3.4 Hezkuntza-komunitateko eragileak (irakasle, ikasleak, familia…) eta udalak biziberritze prozesuaren parte aktibo bihurtu, sentsibilizatuz, komunikazio-esparruak zabalduz. | | |
| Ekintza | Ikastetxeekin etengabeko harremana izan, euskararen erabilera sustatzeko dituzten behar eta hutsuneei erantzuteko eta estrategiak elkarrekin la | Udala-UEMA | bilerak/mezuak/deiak |
| Ekintza | Euskara eta Kulturartekotasun proiektua aurrera eraman | Udala-UEMA | burututako proiektua |
| Lan-ildoa | G.3.1. Euskara munduko hizkuntza gutxituen testuinguruan ulertu eta ikuspegi hori gizarteratu. | | |
| Ekimena | G.3.1.1. Hizkuntza lankidetzaren eremuan egindako lana sustatu. | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Ekintza | Hizkuntza lankidetzaren inguruko sentsibilizazio jarduerak antolatu | Udala | antolatutako jarduerak |
| | Ekintza | Bertako eragileen eta beste hizkuntza komunitate batzuetako eragileen arteko sareak osatu | Udala | bilerak/mezuak/deiak |
| | **ERRONKA** | **G.4. Ingurune digitalean euskararen presentzia ziurtatzeko estrategia garatu.** | | |
| | Ekimena | G.4.1.3. Euskarazko eduki, tresna, aplikazio eta baliabide digitalen eskaintza eta kontsumoa areagotzeko estrategiak garatu. | | |
| | Ekintza | Herriko gaien inguruan eduki digitalak sortu | Udala | sortutako edukiak |
| | Ekintza | Herriko eduki sortzaileei laguntza ekonomikoa eta teknikoa eman | Udala | emandako laguntzak |
| 2. | **ARDATZ ESTRATEGIKOA** | **JARRERA / MOTIBAZIOA** | | |
| | **ERRONKA** | **JM.1. Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.** | | |
| | Lan-ildoa | JM.1.1. Euskaldun izatearen kontzientzian eragin. | | |
| | Ekimena | JM.1.1.1. Euskaldunen hizkuntza-eskubideen gaineko kontzientzia areagotu. | | |
| | Ekintza | Hizkuntza paisaia euskalduntzeko kanpainak egin | Udala | kanpaina kopurua |
| | Ekimena | JM.1.1.2. Euskal identitate askotarikoek euskararekin duten lotura aztertu eta estrategiak landu. | | |
| | Ekintza | Euskaraz eroso eta segurtasunez aritzeko eta kontzientzia hartzeko ahalduntze ikastaroak | Udala-Galtzaundi | saio kopurua |
| | Ekintza | Guraso / familia tipologia ezberdinentzako estrategiak eta euskarriak sortu (hizkuntza ohiturei lotuta) | Udala | euskarriak |
| | Ekintza | Gurasoen sentsibilizazioan eragin | Udala | ekimenak |
| | Ekimena | JM.1.1.3. Euskara ikasteko, erabiltzeko eta transmititzeko motibazioak landu, bereziki zainduz harreman eta lagunarte berriak sortzen diren uneak. | | |
| | Ekintza | Aitortza egiteko modu ezberdinak landu euskara ikasten ari direnekin | Udala | ikasle kopurua |
| | Ekintza | Euskara ikasteko aukeren berri eman eta izen-ematera animatu herritarrak | Udala | ikasle kopurua |
| | Ekintza | Euskara-ikasleei, eta oro har, ezagutza mugatua edo pasiboa duten herritarrei, erabilera-aukerak eskaini, aisialdiari lotuta | Udala | egindako eskaintzak |
| | Ekintza | Mintzalaguna bezalako programak sustatu (baita euren aldaerak ere: gurasolagun, gazteena…) | Udala-Galtzaundi | parte-hartzaile kopurua |
| | Lan-ildoa | JM.1.2. Gizartea aktibatzeko esperientziak indartu eta hedatu. | | |
| | Ekimena | JM.1.2.1. Lehen hitza euskaraz egitera gonbidatzeko ekimenak gauzatu. | | |
| | Ekintza | Lehen hitza euskaraz egiteko kanpainak sustatu: Egin Nirekin ere euskaraz… | Udala-UEMA | kanpaina |
| | Ekintza | Abizenak euskalduntzeko kanpaina eskualdean | Udala-UEMA-Galtzaundi | kanpaina |
| | Ekintza | Gizartea aktibatzeko ekimenak sustatu eta lagundu (Euskaraldia, Korrika...) | Udala-Galtzaundi | lagundutako ekimenak |
| | Lan-ildoa | JM.1.3. Euskal-hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin. | | |
| | Ekimena | JM.1.3.1. Euskara biziberritzeko arrazoiak landu eta gizarteratu. | | |
| | Ekintza | Euskararen Eguna antolatu | Udala-Galtzaundi | |
| | Ekimena | JM.1.3.2. Ahalduntze-prozesuak sortu eta dinamizatu. | | |
| | Ekintza | Ikastetxeetan HEDATU proiektua sistematizatu ea ibilbidea zehaztu | UEMA | formazio saioak eta parte hartzea. |
| | Ekintza | Ikasleentzako saioak eman: Ispiluari begira (LH2), Bagoaz (LH6), Bixi tailerra... | UEMA | formazio saioak eta parte hartzea. |
| | Ekintza | Seme-alaben hizkuntza ohituretan eragiteko formazioa eskaini gurasoei | UEMA | formazio saioak eta parte hartzea. |

| | | | |
|---|---|---|---|
| Ekintza | UEMAren Salto! Udaleku ibiltaria antolatzen jarraitu | UEMA | parte hartze datuak |
| Ekintza | Arnasguneen eta udalerri euskaldunen errealitatearen eta garrantziaren gaineko kontzientziazioa landu | UEMA | formazioak, parte hartzea eta asebetzea |
| Ekintza | Herritar euskaldunak ahalduntzeko eta kontzientziatzeko egitasmoak abiatu: Arnasa Gara, ahalduntze saioak… | UEMA-Galtzaundi | egitasmoak |
| Ekintza | Erreferente direnekin (entrenatzaile, begirale…) sentsibilizazioa landu (bakarrizketak…) | Udala | egitasmoak |
| Ekintza | Erreferente direnekin (entrenatzaile, begirale…) formazio saioak eskaini | Udala-UEMA | formazioak, parte hartzea eta asebetzea |
| Ekimena | JM.1.3.4. Euskal komunitatearen ikusgarritasuna bermatzeko estrategiak diseinatu eta garatu. | | |
| Ekintza | Herrietako leku estrategiko edo sarreratan "herri euskalduna" gisako kartelak jarri | Udala-UEMA | jarritako kartelak |
| Ekintza | Nerabe-gazteekin elkarlanean, eurentzat erreferente izan daitezkeen pertsonekin saioak antolatu | Udala | egindako saioak |
| Ekimena | JM.1.3.5. Euskal kulturaren dimentsioa kontuan hartzen dituzten edukiak eta baliabideen sorkuntza eta kontsumoa bultzatu. | | |
| Ekintza | Euskarazko produktuen katalogoa banatu ikastetxeetan | Udala | katalogo kopurua |
| Ekintza | Euskarazko baliabide digitalak, plataformak… landu gazteekin | Udala-UEMA | euskarriak |
| **ERRONKA** | **JM.2. Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.** | | |
| Lan-ildoa | JM.2.1. Euskaldunen komunitatea sendotu. | | |
| Ekimena | JM.2.1.1. Komunitatearekiko atxikimendua lortzeko eta komunitatearen parte izateko bideak aztertu eta estrategiak landu. | | |
| Ekintza | Kultura ekitaldiak antolatu: kontzertuak, irakurke kluba, bertso afaria, lehiaketak… | Udala | ekitaldi kopurua |
| Ekintza | Geuretik Sortuak bezalako egitasmoak babestu eta bultzatu | Udala | lagundutako ekitaldiak |
| Ekintza | Barraketako musika euskaraz izan dadin bermatu | Udala | euskarriak |
| Lan-ildoa | JM.2.2. Gizartea aktibatzeko esperientziak indartu eta hedatu. | | |
| Ekimena | JM.2.2.2. Hezkuntza-sistema eleaniztunean euskara elementu kohesionatzaile izan dadin lortu. | | |
| Ekintza | Gazteek euskararekiko sentsibilizazioa areagotzeko egitasmoak antolatu | Udala-Galtzaundi | saio kopurua |
| Ekintza | Eskoletan hizkuntza-irizpideak zehazteko edo berritzeko aholkularitza eman | Udala-UEMA | aholkularitza kopurua |
| Ekintza | Ikastetxeen artean praktika onak konpartitu | Udala | praktika kopurua |
| Ekintza | Herriko hezkuntza komunitatearen hizkuntza beharrak jaso | Udala | beharren kopurua |
| Ekintza | Gurasoek, ikastetxeek eta euskara zerbitzuak sare edo egitura bat sortu, helburu jakin batzuk elkarrekin landu ahal izateko eta komunikazio eraginkor bat izateko | Udala | bilerak/mezuak/deiak |
| Ekimena | JM.2.2.5. Euskarak eta euskal kulturak duten nortasun propioaren indarra baliatu eta erakutsi. | | |
| Ekintza | Gidak, hiztegitxoak… zabaldu | Udala-UEMA | euskarriak |
| Ekintza | "Bertatik bertara" kanpaina egin, bisitariei euskararen berri emateko | Udala-UEMA | euskarriak |
| Lan-ildoa | JM.2.4. Euskarara hurbildu ez diren herritarrak euskarara erakarri. | | |
| Ekimena | JM.2.4.1. Euskaratik urrun daudenen pertzepzioetan sakondu. | | |
| Ekintza | Behe maileko taldeetan saioak eskaini, hizkuntza aniztasunari, euskararen egoerari eta arnasguneen garrantziari buruzko informazioa jaso dezaten eta euskararekin duten harremanari buruz hitz egin dezaten, aurrera begira baliabideak eta tresnak eskaintzeko. | Udala-UEMA | formazioak |
| Ekimena | JM.2.4.4. Atzerritar jatorriko herritarrentzako harrera linguistikoa eta kulturala zehaztu eta indartu. | | |
| Ekintza | Etorri berriei hizkuntza harrera egiteko ibilbidea eta baliabideak eskaini | Udala-UEMA | baliabideak/parte hartze datuak |
| Ekintza | Harrera komunitarioa egin etorri berriei | Udala-UEMA | baliabideak |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Ekintza | Tolosaldeko Harrera Protokoloa herriratu eta egokitu | Udala-UEMA | protokoloa |
| | Ekintza | Harrera gidak aztertu eta egokitu | Udala | aztertutako gidak |
| | Ekintza | Eskolei harrera programak antolatzeko laguntza eskaini | Udala-UEMA | baliabideak |
| | Ekimena | JM.2.4.5. Atzerritar jatorriko herritarren kultura eta hizkuntzaren, eta euskal kultura eta euskararen arteko zubia egiteko estrategia hezitzaileak diseinatu. | | |
| | Ekintza | Atzerritarrei euskal kultura ezagutzera eman | Udala | erabilitako baliabideak |
| | Ekintza | Euskara eta Kulturartekotasun proiektua aurrera eraman. Euskara ardatz izanik, kultura ezberdinetako herritarrak elkarrengana hurbiltzeko, ulermena bermatzeko eta parte hartzea sustatzeko. | UEMA-Udala | parte hartzea/ekimenak |
| | Ekintza | Etorri berriekin lanean ari diren eragileekin elkarlana burutu informazio-orriak banatzeko | Udala | erabilitako baliabideak |
| | Ekintza | Errefortzu eskolak edo estrategiak garatu | Udala | parte hartzea/ekimenak |
| | Ekintza | Hizkuntza errefortzuan ari diren eragileen koordinazioa bermatu | Udala | egindako bilerak |
| | Ekimena | JM.2.4.6. Hizkuntza-aniztasunari buruzko diskurtsoa aberastasun gisa eraikitzen lagundu. | | |
| | Ekintza | Hizkuntza aniztasunari buruzko hausnarketa saioak bultzatu | Udala | saio kopurua |
| 3. | ARDATZ ESTRATEGIKOA | EZAGUTZA / GAITASUNA | | |
| | **ERRONKA** | **EG.1. Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.** | | |
| | Lan-ildoa | EG.1.1. Euskara eta euskal kulturari buruzko ezagutza gizartean orokortzeko bideak jarri. | | |
| | Ekimena | EG.1.1.2. Euskararen aldeko arau sozialetan sakondu (lehen hitza beti euskaraz, adibidez). | | |
| | Ekintza | Euskaldunak ahalduntzeko tailerrak egin | Galtzaundi | parte hartzea |
| | Ekintza | Euskaraldian parte hartzea sustatu | Udala-Galtzaundi | parte hartzea |
| | Lan-ildoa | EG.1.2. Familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri. | | |
| | Ekimena | EG.1.2.2. Familia-transmisioari lotutako proiektuak egokitu ibilbide biologikoa kontuan hartuta. | | |
| | Ekintza | Transmisioan laguntzeko baliabideak eskaini, liburuak, diskoak… etxean euskarazko materiala izateko | Udala | banatutako materiala |
| | Lan-ildoa | EG.1.3. Hezitzaileen eta irakasleen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan. | | |
| | Ekimena | EG.1.3.2. Hezitzaile eta irakasleei euskal kulturaren eta praktika soziolinguistikoan inguruko prestakuntza, materialak eta praktika onak eskaini. | | |
| | Ekintza | Irakasleak eta hezitzaileak trebatu soziolinguistikan eta erabilera estrategietan | UEMA | formazio saioak eta parte hartzea. |
| | Ekintza | Aisialdi, kirol eta kultura arloan estrategikoak diren elkarteei formazio soziolinguistikoa eman (begiraleak, entrenatzaileak…). | UEMA- Udala | formazio saioak eta parte hartzea. |
| | Ekintza | Ahalduntze saioak eskaini udalekuetako begiraleei eta kirol entrenatzaileei | UEMA- Udala | formazio saioak eta parte hartzea. |
| | **ERRONKA** | **EG.2. Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.** | | |
| | Lan-ildoa | EG.2.1. Ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu. | | |
| | Ekimena | EG.2.1.3. Hizkuntza- eta kultura-ondarea jaso, eta gaur egungo beharrei erantzuteko baliabideak sortu nahiz zabaldu. | | |
| | Ekintza | Euskararen historia sozialari buruzko lanketak prestatu | Udala-Galtzaundi | parte hartzea |
| | Lan-ildoa | EG.2.2. Euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu. | | |
| | Ekimena | EG.2.2.1. Tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertu eta beharraren araberako eskaintzak sortu. | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Ekintza | Herrian euskara ikasteko taldeak sortzeko laguntza eta baliabideak eskaini. | Udala | euskalduntze datuak |
| | Ekintza | Euskara ikasleei euskara ikasteko dirulaguntzak eman | Udala | banatutako dirulaguntzak |
| | Ekintza | Erdalduntzen ari diren lan eremuetan euskara ikastaroak emateko aukerak aztertu (ostalaritza, zaintza-lanak...) | Udala | Ikastaroak |
| | Ekintza | Udako ikastaro trinkoak eskaini etorri berriei eta diruz lagundu | Udala | emandako laguntzak |
| | **ERRONKA** | **EG.3. Euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.** | | |
| | Lan-ildoa | EG.3.1. Atzerritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman. | | |
| | Ekimena | EG.3.1.2. Atzerritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman. | | |
| | Ekintza | Atzerritar jatorriko herritarren seme-alabek eskolaz kanpoko jardueretan (udalekuak, kirola…) parte har dezaten sustatu eta, behar bada, diruz laguntzeko aukerak aztertu | Udala-UEMA | parte hartze datuak |
| | **ERRONKA** | **EG.4. Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.** | | |
| | Lan-ildoa | EG.4.1. Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa handitu, bereziki gazteena. | | |
| | Ekimena | EG.4.1.2. Gazteen adierazkortasuna eta euskararen ezagutza praktikoa handitzeko tresnak garatu. | | |
| | Ekintza | Ahozkotasuna lantzeko programak sustatu: Gu ere bertsotan, gazte hizkera… | Udala | emandako saioak |
| | Lan-ildoa | EG.4.2. Euskara gaitasuna hobetzen | | |
| | Ekimena | EG.4.2. Euskara gaitasuna hobetzen | | |
| | Ekintza | Euskarazko udaleku eta abarrak antolatu edo sustatu | UEMA-Udala | antolatutako ekimenak |
| | Ekintza | Udako ikastaro trinkoak diruz lagundu | Udala | emandako laguntzak |
| **4.** | **ARDATZ ESTRATEGIKOA** | **ERABILERA / ELKARRERAGINA** | | |
| | **ERRONKA** | **EE.1.Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.** | | |
| | Lan-ildoa | EE 1.1. Euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu | | |
| | Ekimena | EE.1.1.1. Belaunez belauneko transmisioa indartu eta etxeko erabilerari eutsi. | | |
| | Ekintza | Haur jaioberrien gurasoei eskutitza, kotxerako pegatina eta oparia bidali, haurrei euskaraz egitearen garrantzia nabarmentzeko | Udala-UEMA | bidalitako gutunak |
| | Ekintza | Ikasleeen gurasoen hizkuntza profilak jaso, guraso eta familia tipologien berri izateko eta bilakaera aztertzeko | UEMA | datuen bilakaera |
| | Ekintza | Ikasleen familia tipologien arabereko materiala banatu ikastetxeetan | Udala | banatutako materiala |
| | Ekimena | EE.1.1.2. Zaintza-guneetan euskararen erabileran eragin. | | |
| | Ekintza | Zaintza-guneetako langileentzat (zahar-etxe, etxez etxeko zaintza…) euskara ikastaro laburrak egitea sustatu | Udala | bilerak/mezuak/deiak |
| | Ekimena | EE.1.1.3. Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan. | | |
| | Ekintza | Merkataritzan eta ostalaritzan, euskararen erabilera sustatzeko kanpaina egiten jarraitu: sentsibilizazioa (eskuorriak, mahai gainekoak) eta itzulpen zerbitzua eskaini | Udala-Galtzaundi-UEMA | egindako eskaerak |
| | Ekintza | Establezimenduei euskarazko errotululazioa eta webgunea euskaraz jartzeagatik dirulaguntzak eman | Udala | egindako eskaerak |
| | Ekintza | Hirigintza sailarekin adostu establezimenduak ireki aurreko kontsultetan informazioa ematea | Udala | egindako eskaerak |
| | Ekintza | Banketxeekin hitzarmenak egin eta horietan euskararen erabilera bermatu | Udala-UEMA | datuen bilakaera |
| | Ekintza | Aldian-aldian, osasun zentroko langileen hizkuntza ezagutzaren azterketa egin | UEMA | datuen bilakaera |
| | Ekintza | Erakunde publiko eta pribatuetako euskararen erabileraren jarraipena egin eta egon daitezkeen intzidentziak erregistratu eta horiek bideratu | UEMA-Galtzaundi | datuen bilakaera |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | Ekimena | EE.1.1.5. Aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu. | | |
| | Ekintza | Euskarazko kultur emanaldiak lehenesteko lanketak egin | Udala | euskarazko emanaldien datuak |
| | Ekintza | Udalak antolatutako aisialdiko ekintzak euskaraz izango direla bermatu | Udala | euskarazko ekintza kopurua |
| | Ekintza | Herriko elkarteekin lanketak egin, herriko errealitate soziolinguistikoaz jabetzeko, hizkuntza irizpideak zehazteko eta hizkuntza kudeaketaren inguruko komunikazio formatuak adosteko | Udala-UEMA | hizkuntza erabilera datuak |
| | Ekintza | Herriko kirolean/aisialdi antolatuan euskararen egoeraren eta erabileraren diagnostikoa egin | Udala | egindako diagnostikoa |
| | Ekintza | Herriko kirol elkarteetan/aisialdi antolatuan euskararen erabilera areagotzeko (mikro)planak diseinatu eta inplementazioan lagundu | Udala | egindako planak |
| | Ekintza | Herriko kirol elkarteetan/aisialdi antolatuan euskararen erabilera areagotzeko hausnarketa saioak antolatu: klubeko zuzendaritzakoekin, entrenatzaileekin, begiraleekin… | Udala-UEMA | egindako saioak |
| | Ekintza | UEMAren Salto! udaleku ibiltarian parte hartzera animatu herriko gazteak | UEMA | izandako eskaerak |
| | Ekintza | Parketarrak egitasmoa martxan jarri erabilera handitzeko | Udala | parte-hartzaile kopurua |
| | Ekimena | EE.1.1.6. Ingurune digitalean euskara erabiltzeko espazioak irabazi. | | |
| | Ekintza | Herriko eragileen webguneak euskaratzeko laguntza eman | Udala | egindako eskaerak |
| | Ekintza | Haur eta gazteentzat ingurune digitala euskaraz sustatu | Udala | ekimenak |
| | Ekimena | EE.1.1.7. Euskarazko hedabideak bultzatu. | | |
| | Ekintza | Euskarazko komunikabideen arteko proiektu partekatuak lagundu: Tolosaldeko komunikabideen bateratzea | Udala | egindako proposamena |
| | Ekintza | Euskarazko komunikabideak ezagutzera emateko harpidetzak sustatu | Udala | harpidetza kopurua |
| | Ekintza | Tokiko hedabideekin hitzarmenak sinatu | Udala | hitzarmen kopurua |
| | Ekimena | EE.1.1.8. Euskarazko kultura produktuak sortu eta ezagutarazi, kontsumoa areagotzeko. | | |
| | Ekintza | Sortzaileen gida sortu eta zabaldu | Galtzaundi | gida kopurua |
| | Ekimena | EE.1.1.9. Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten. | | |
| | Ekintza | Gida-baimenak euskaraz ateratzeko sustapena egin | Udala-UEMA-Galtzaundi | egindakoen kopurua |
| | Ekintza | Euskaraz kontsumitzeko kanpainak egin: merkataritzan-ostalaritzan-zerbitzuetan | Udala-Galtzaundi | kanpaina kopurua |
| | Ekintza | Errenta aitorpena euskaraz egiteko kanpainak bultzatu | Udala-UEMA | euskarazkoen kopurua |
| | Ekimena | EE.1.1.10. Bereziki 16 urtetik beherako gazteak lehenetsi euskararen erabilera sustatzeko esku-hartzeak diseinatu eta garatzerakoan. | | |
| | Ekintza | Ipuin kontalariak eskaini liburutegian edo umeen espazioetan | Udala | saio kopurua |
| | Ekintza | Gurasoek, ikastetxeek eta euskara zerbitzuak sare edo egitura bat sortu, helburu jakin batzuk elkarrekin landu ahal izateko eta komunikazio eraginkor bat izateko | Udala | bilerak/mezuak/deiak |
| | Ekimena | EE.1.1.11. Erakunde publikoek 16 urtetik beherako haur eta gazteentzat antolatzen dituzten eskola-orduz kanpoko jardueren ohiko hizkuntza euskara izan dadin neurriak hartu. | | |
| | Ekintza | Udalak antolatutako ekintzak euskaraz izango direla bermatu | Udala | ekintza kopurua |
| | Ekintza | Udalak eragileekin sinatutako hitzarmenetan hizkuntza-irizpideak sartu eta betetzen direla bermatu | Udala | hitzarmen kopurua |
| **5.** | **ARDATZ ESTRATEGIKOA** | **BERRIKUNTZA** | | |
| | **ERRONKA** | **B.1. Euskarazko berrikuntza-sistema bat sustatu.** | | |
| | Ekintza | Lankidetzan aritu euskarazko berrikuntzako eragileekin: Soziolinguistika Klusterra… | Udala | lankidetza kopurua |
| **6.** | **ARDATZ ESTRATEGIKOA** | **IKERKETA / SISTEMATIZAZIOA** | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| | **ERRONKA** | **IS.1.Ikerkuntza bultzatu, ardatz estrategikoetako erronka bakoitzaren nondik norakoak sakon ezagutzeko.** | | |
| | Ekintza | Euskararen erabilera neurtzeko kale-neurketak egin | Udala-Galtzaundi | egindako neurketa |
| | Ekintza | UEMAren kuaderno demolinguistikoak aztertu | UEMA-Udala | egindako azterketa |
| | Ekintza | UEMAtik bideratzen diren ikerketen emaitzak herriratu | UEMA | ikerketak |
| **7.** | **ARDATZ ESTRATEGIKOA** | **KOMUNIKAZIOA / HEDAPENA** | | |
| | **ERRONKA** | **KH.1.Ardatz estrategikoetako lan-ildo bakoitzak dituen xede-taldeak identifikatu eta bakoitzarentzat egokia den komunikazio estrategia aplikatu** | | |
| | Ekintza | Udalak egiten duen lanaren berri eman eta hartzaile motaren arabera egokitu | Udala | komunikazio kanalak |
| | Ekintza | Egiten den lanaren berri eman: Amavi, webgunea, sare sozialak, berripaperak, barne buletinak… | Udala-UEMA-Galtzaundi | komunikazioak |

BETAURREKO MOREAK:

Plan hau eta ekintzak genero ikuspegiarekin osatzeko proposamenak jaso ditugu ondorengo hitz hauetan. Jarraibide eta adibide batzuk proposatu nahi izan ditugu, berdintasun sailarekin elkarlanean egiteko:

- Errealitate soziolinguistikoa genero ikuspegitik aztertu:
  - Udalak egiten dituen inkesta, estatistika eta datu bilketetan genero aldagaia txertatu sistematikoki (programetako izen emateak, norbanakoei emandako diru-laguntzak, programatutako kultur/kirol ekimenetan eskaintza eman (sortzaile, entrenatzaile…) eta jaso dutenak (herritarrak), Euskara Batzordeetan parte hartu duten pertsonak, euskaltegietan izena emandakoak, Euskalgintzako erakundeetako kideak, eta horietan ardura postuetan daudenak…)
  - Adierazle berriak ezartzea aztertu, genero aldagaia aintzat hartuz (adierazleak planteatu beharko lirateke behin helburuak hautatuta, baina genero aldagaia aintzat hartzea proposatzen da. Esaterako, udaleko euskara arlotik bideratutako kontratu eta dirulaguntzetako zenbatetan ezarri diren genero klausulak).
  - Iturri ofizialetan dauden datuen artean genero aldagaia dutenak ere jaso eta horiek aztertu.
  - Lantzen diren plangintza, diagnostiko, memoria txosten, ebaluazio txosten eta antzekoetan genero irakurketak egin, aipatutako datuak aintzat hartuz.
- Berdintasun klausulak txertatu kontratu, hitzarmen eta dirulaguntzetan:
  - Euskara alorretik egiten diren kontratazioetan genero klausulak txertatu.
  - Euskara alorretik egiten diren dirulaguntza deialdietan genero klausulak txertatu.
  - Euskara alorretik egiten diren hitzarmenetan genero klausulak txertatu.
- Euskalgintzako erakundeetako kideak genero berdintasunean formatu, haien zereginetan genero ikuspegia txerta dezaten:
  - Helduekin ari direnak: Berbalagun, euskaltegiak…
  - Haur, nerabe eta gazteekin ari direnak: Bertso eskola, aisialdi taldeak…
- Genero irizpideak zehaztu eta aplikatu egiten den eskaintzan emakumeen eta gizonen parte hartze orekatua sutatzeko:
  - Egiten den kultur/aisialdi eskaintzan sortzaileen/bideratzaileen artean parte hartze orekatua sustatu.
  - Eskaintzak egitean publiko talde guztientzako eskaintza orekatuak egin.
  - Ordutegiak zehaztean zaintza beharrak aintzat hartu, eta, beharrezko ikusten denean, haurtzaindegi zerbitzuak eskaini.
- Komunikazio inklusiboa gauzatu:
  - Euskara alorrean komunikazioaz arduratzen diren langileei formazioa eman komunikazio inklusiboa gauzatzeko.
  - Udaleko hizkuntza irizpideak genero ikuspegitik berrikusi, hizkera inklusiboa bermatzeko.
  - Euskararen aldeko komunikazio kanpainak kontratatzean genero ikuspegia berariaz lantzea eskatu: hizkera eta irudiak zaindu, genero rol eta estereotipoak ez erreproduzitzea zaindu, areago, rolak iraultzeko aukerak aztertu…
  - Komunikazio inklusiboaren erabilera sustatzeko, udalak egiten dituen kontratu, dirulaguntza eta hitzarmenetan klausula gehitu horri buruz.
- Kontziliazio erantzunkidea sustatu egiten den eskaintzaren bidez:
  - Eskaintzetan ordutegiak aintzat hartu zaintza lanez arduratzen direnek parte hartzea errazteko.
  - Euskalduntze kanpainetan aitei zuzendutako kanpainak egin, guraso taldeetan parte har dezaten.
  - Parketarrak egitasmoa bezalakoetan gizonen parte hartzea bultzatu.
  - Gurasoei zuzendutako programetan zaintza erantzunkideari buruzko lanketak egin.